



## KOMUNIKAZIO ARLOA • ÁREA DE COMUNICACIÓN

Orri kopurua (hau barne) / Nº de páginas (incluida ésta):

Data / Fecha:

4

12-11-12

### PRENTSA OHARRA / NOTA DE PRENSA

Bi proiektuek auzoko bizi kalitatea hobetuko dute  
**Maidagan-Sarrikobasoko bi jarduera urbanistiko berriei buruzko informazioa emateko eta parte-hartzeko modulua inauguratu da**

Los dos proyectos mejorarán la calidad de vida de la zona  
**Inaugurado el módulo de información y participación sobre las dos nuevas actuaciones urbanísticas en Maidagan-Sarrikobaso**

Getxoko Udalak, kasu batean Bizkaiko Garraioen Partzuergoarekin elkarlanean eta bestean era zuzenean, Maidagan-Sarrikobaso aldean hiri gunek sortzeko bi jarduera berri jarriko ditu martxan. Lehenengoa, Maidaganen lurperatutako metroko zatiaren urbanizazio proiektuari dagokio, eta bigarrena, Sarrikobasoko 31.1 unitatea urbanizatzeko proiektua da, bertan Eusko Jaurlaritzak babes ofizialeko etxeak eraikiko baititu. Bi proiektu desberdinak izango dira, epe desberdinetan aurrera eramango direnak, baina bai diseinuarekin bai bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin era koordinatuan bat egingo dutenak. Horretarako bi gunek berri egokituko dira, batera 8.400 metro koadro baino gehiago izango dituztenak guztira, egoiliarren arteko topaketarako eta gozamenerako pentsatuta. Gune horiek guztiz irisgarriak izango dira eta beren egokitzapenean material ekologikoak erabiliko dituzte.

Hain zuzen ere, Udalak, Garraio Partzuergoarekin (CTB) batera, Maidaganen

El Ayuntamiento de Getxo, en un caso en colaboración con el Consorcio de Transportes de Bizkaia y en otro de manera directa, va a llevar a cabo dos nuevas actuaciones de creación de espacios urbanos en la zona de Maidagan-Sarrikobaso. La primera se refiere al proyecto de urbanización del tramo soterrado del metro en Maidagan, y la segunda, el proyecto de urbanización de la unidad 31.1 de Sarrikobaso, donde Gobierno Vasco construirá vivienda de protección oficial. Se trata de dos proyectos distintos que se llevarán a cabo en diferentes plazos pero que confluirán de manera coordinada tanto en su diseño como en el objetivo de mejorar la calidad de vida en dicha zona. Para ello, se habilitarán dos nuevos espacios, que en conjunto suman alrededor de 8.400m<sup>2</sup>, ideados para contribuir al encuentro y disfrute de las personas residentes. Serán totalmente accesibles y en su adecuación se utilizarán materiales ecológicos.

Precisamente, el Ayuntamiento, junto con el Consorcio de Transportes (CTB), ha instalado



# Getxo

*bizi ezazu*

modulu bat ipini du azaroaren 30era arte bi jarduera berri horiei buruzko informazioa emateko eta beraietan parte hartu ahal izateko. Moduluaren inaugurazio ofiziala gaur goizean izan da eta bertan izan dira Imanol Landa Getxoko alkatea eta Mikel Torres Bizkaiko Garraio Partzuergoko presidentea. Bi urbanizatzeko jardueri buruzko erakusketa jasotzen du moduluak, informazio eta infografiekin, eta horrez gainera, kutxa bat paratu dute bertan herritarrek proiektuen gainean beren iradokizunak sartzeko.

Imanol Landak horren harira adierazi duenez *"urrats berri bat da azken urteotan aurrera daramagun udalerraren modernizatzeko prozesuan. Ezinbestekoa da erakunderen arteko akordioa, oraingo honetan, Udalaren eta Garraio Partzuergoaren artean. Eta azpimarratu herritarren parte-hartzea funtsezkoa dela. Herritarren iritzia zein den jakin nahi dugu, azken lau urteotan zaharberri ditugun udalerriko parke guztien gaineko proposamen guztiekin egin dugun bezalá"*.

Mikel Torresek, bere aldetik, modu positiboan ere baloratu du bi erakundeek lortutako hitzarmena eta aipatu du CTB-n metropoli-trenbidea zabaltzeak herritarrengan duen eragozpenak ahal den neurrian zuzentzen saiatzen direla *"eta kasu honetan Maidaganen trenbidea lurperatu ahal izanak eta inguruaren urbanizazioan lagundu ahal izateak Garraio Partzuergoaren eta Udalaren arteko lankidetzak ahalbidetzen du. Aurrekontu handia duten lanak dira eta Partzuergoaren laguntzarik gabe udal batek berak bakarrik ezingo lituzkeen aurrera eramán"*.

## **4.008 m<sup>2</sup>-ko berdegune eta aisialdirako esparruak Maidaganen**

Joseba Arregi hirigintza zinegotziak azaldu duenez, *"metropoli-trenbidearen estaldurak sortutako azalera erabilgarri berria aprobetxatuz, gune hori zein Urduña kalearekin lotzen dituen oinezkoentzako*

en Maidagan un módulo de información y participación sobre estas dos nuevas actuaciones, que estará abierto hasta el próximo 30 de noviembre. Un módulo cuya inauguración oficial ha tenido lugar esta misma mañana, a cargo del alcalde de Getxo, Imanol Landa y el presidente del Consorcio de Transportes de Bizkaia, Mikel Torres, y que alberga una exposición con información e infografías sobre los dos proyectos de urbanización y en el que, además, se ha instalado una urna en la que la ciudadanía puede depositar sus sugerencias sobre ambos proyectos.

Imanol Landa ha señalado al respecto que *"se trata de un paso más en el proceso de modernización del municipio que venimos desarrollando en los últimos años. Es fundamental el acuerdo entre instituciones, en este caso entre el Ayuntamiento y el Consorcio de Transportes. Y subrayar que lo estamos desarrollando en clave participativa. Queremos saber el criterio de las vecinas y vecinos, como lo hemos hecho en las propuestas de todos los parques del municipio reformados en los últimos cuatro años"*.

Mikel Torres, por su parte, ha valorado también de forma positiva el acuerdo alcanzado por las dos instituciones y ha señalado que en el CTB intentan corregir en la medida de lo posible las afecciones negativas que causa en la población la extensión del ferrocarril metropolitano *"y, en este caso, el poder soterrar las vías en Maidagan. hace posible la colaboración entre el Consorcio de Transportes y el ayuntamiento. Son obras de un presupuesto importante que sin la colaboración del Consorcio no podría acometer un ayuntamiento por sí solo"*.

## **4.008m<sup>2</sup> con zonas verdes y de ocio en Maidagan**

Según ha explicado el concejal de Urbanismo, Joseba Arregi, *"aprovechando la nueva superficie útil generada por la cubrición del metropolitano en Maidagan, se urbanizará de*



# Getxo

*bizi ezazu*

*ibilbideak urbanizatzeko lanak egingo dira. Urbanizatuko den zatiaren alde batean oinezkoentzako pasealekua izango da".*

Lanak 4.008m<sup>2</sup>-ko azalerako eremu batean egingo dira. Bertan aisialdirako gunek bat egokitzeko asmoa dago, umeentzako estaldutako 617m<sup>2</sup>-ko bi jolasleku izango dituenak (bosna markesinako bi modulu Goñi kalearen ondoan) eta hirugarren gunek bat izango da ping-pong mahaiekin eta hiri-altzariarekin (paperontziak, bankuak, aulkiak, iturriak, kale-argiak...). Halaber, berdeguneak eta lorategiak atonduko dira sasoiko landareekin -1.705 m<sup>2</sup>-ko berdegunea guztira-. Zoladura ekologikoa esaten zaion horietakoa ipiniko dute "Bilbao" erako antzeko baldosarekin, tamaina ezberdinekoa izango bada ere- eta ureztatzeko sareko kanalizazioak egingo dira. Irisgarritasunari dagokionez, lanak indarrean dagoen araudia betez egingo dira.

Lanak egiteko epea, guztira, 5 hilabetekoa da eta horien lizitazioaren aurrekontua 1.000.000 eurotik gorakoa. Garraio Partzuergoak 800.000 eurotik gora ipiniko ditu lanak ordaintzeko eta Udalak, bere aldetik, proiektuaren idazketa eta Partzuergoak ipinitakoaz gain jarri beharrekoa ordainduko du.

## **2.151 m<sup>2</sup> berdegune, 63 BOE etxebizitza eta 79 aparkaleku berri Sarrikobason**

Bestalde batetik, Udalak Sarrikobasoko 31.1 unitatea urbanizatzea aurreikusi du, non Eusko Jaurlaritzak babes ofizialeko 63 etxebizitza eraikiko dituen. "Etxebizitza berrien ondoan, Maidaganeko jarduerarekin era koordinatuan, gunek urbanizatu berria diseinatu da eta horretan 2.151 metro koadroko berdegunea izango da eta bertan espezie desberdinetako 51 zuhaitz landatuko dituzte. Guztiz irisgarria izango den aisialdirako alde berrian hiri-altzariak ipiniko dituzte ere, kale-argiak, bankuak eta paperontziak, besteak beste. Era berean,

*forma completa la misma, así como los itinerarios peatonales que conectan la nueva zona con la calle Puerto de Orduña. A uno de los lados de la superficie que se va a urbanizar concurrirá un paseo peatonal".*

En un ámbito de actuación de 4.008 m<sup>2</sup>, se proyecta un espacio de ocio con dos zonas de juegos infantiles cubiertas de 617 m<sup>2</sup> (con dos módulos de cinco marquesinas cada uno junto a la calle Goñi) y una tercera descubierta con mesas de ping-pong y mobiliario urbano (papeleras, bancos, sillas, fuentes, farolas...). Así mismo, se acondicionarán zonas verdes y ajardinadas con plantas de temporada –un total de 1.705 m<sup>2</sup> de superficie verde-. Se utilizará para la zona a urbanizar pavimento de los denominados ecológicos –con baldosa similar a la del tipo "Bilbao", aunque de un tamaño diferente- y se ejecutarán canalizaciones de la red de riego correspondiente. En cuanto a la accesibilidad, la actuación se realizará en consonancia con la normativa vigente.

El plazo total para la ejecución de las obras es de 5 meses y el presupuesto de licitación de las mismas es de algo más de 1.000.000 de euros. El Consorcio de Transportes sufragará con más 800.000€ las obras mientras que el Ayuntamiento costeará tanto la redacción del proyecto como la parte de la obra que exceda de lo aportado por el Consorcio.

## **Zona verde de 2.151m<sup>2</sup>, 63 viviendas VPO y 79 nuevos aparcamientos en Sarrikobaso**

Por otra parte, el Ayuntamiento ha diseñado la urbanización de la unidad 31.1 de Sarrikobaso en la que Gobierno Vasco construirá 63 viviendas de VPO. "Junto a las nuevas viviendas se ha diseñado, de manera coordinada con la actuación de Maidagan, un nuevo espacio urbanizado que incluye una zona verde de 2.151 metros cuadrados en los que se plantarán 51 árboles de varias especies. La nueva zona de esparcimiento, totalmente accesible, contará a su vez con diverso



# Getxo

*bizi ezazu*

*aparkatzeko 79 toki berri jartzea ere aurreikusten da*, Arregiren esanetan. Sarrikobasoko 4.375m<sup>2</sup>-ko azalera duen unitate horren urbanizazio-jarduerak 545.000 euroko aurrekontua du.

Moduluaren ordutegia honako hau izango da: astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 20:00etara, larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, eta igandetan 10:00etatik 14:00etara. Iradokizunak honako helbide elektronikoa honen bitartez ere egin ahalko dira: [iradokizun@getxo.net](mailto:iradokizun@getxo.net)

**(\*) Argazkiak, adierazpenak eta TB irudiak eskuratzeko:**  
<http://www.getxo.net/prensa>.  
**Pasa-hitza: fotoscortes**

Ohar honen hedapena eskatzen dizuegu. Aldez aurretik, beti eskaintzen diguzuen arreta eskertzen dizuegu. Begirunez.

*mobiliario urbano, como luminarias, bancos y papeleras. Del mismo modo, se prevé la habilitación de 79 nuevas plazas de aparcamiento*", según Arregi.

La urbanización de esta unidad de Sarrikobaso de 4.375 m<sup>2</sup> tiene un presupuesto de 545.000 euros.

El horario de apertura del módulo será de lunes a viernes de 16:00 a 20:00h., los sábados de 10:00 a 14:00 y de 16:00 a 20:00h, y los domingos de 10:00 a 14:00h. Las sugerencias de la ciudadanía sobre ambos proyectos pueden entregarse también a través de la siguiente dirección de correo electrónico: [iradokizun@getxo.net](mailto:iradokizun@getxo.net)

**(\*) Para acceder a fotografías, cortes de audio e imágenes TV:**  
<http://www.getxo.net/prensa>.  
**Contraseña: fotoscortes**

Rogamos la difusión de esta nota. Agradecemos la atención que siempre nos prestáis. Atentamente.



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Orri kopurua / Nº de páginas:

Data / Fecha:

### **PRENTSA OHARRA / NOTA DE PRENSA**

Auzotarren 50 bat iradokizun bildu dira Udalak egindako herritarren parte-hartze prozesuan

**Gobernu Batzordeak datorren asteartean onartuko du Maidaganen lurperatu duten metroko azaleko zatiaren urbanizazio proiektua, lizitazio-prozesuari hasiera emanez**

Se han recogido cerca de 50 sugerencias vecinales sobre el proyecto en el proceso de participación ciudadana llevado a cabo por el Consistorio

**La Junta de Gobierno aprobará el próximo martes el proyecto de urbanización del tramo soterrado del metro en Maidagan iniciándose el proceso de licitación**

Tokiko Gobernu-taldeak datorren astearteko batzarrean, hilaren 26koan, onartuko du Maidaganen lurperatu duten metroko azaleko zatiaren urbanizazio proiektua, lanak esleitzeko lizitazio-prozesuari hasiera emanez. Onartu ondoren, lanak esleitzeko lizitazio-aldia hasiko da, Getxoko Udalak herritarrek parte hartzeko zabaldutako prozesua itxi baita dagoeneko. Prozesu horretan auzokoek, metroa lurperatuta geratu den espazio publiko berriaren definizioa bideratzen laguntzeko aukera izan dute.

Hiritarren parte-hartze prozesu horretan auzotarren 50 iradokizun inguru bildu dira eta horietatik ideia ugari proiektuan jaso dira. Jolasgune, hiri-altzari, lorazaintza, irisgarritasun, argi, aparkaleku eta bidegorriari buruzko iradokizunak aurkeztu dituzte, besteak beste.

Esparru horren urbanizazioaren bitartez,

La Junta de Gobierno local aprobará en su reunión del próximo martes, día 26, el proyecto de urbanización del tramo soterrado del metro en Maidagan, iniciándose el proceso de licitación para adjudicar las obras, tras el proceso de participación ciudadana llevado a cabo por el Ayuntamiento de Getxo. Un proceso que ha permitido a las y los vecinos de la zona orientar la definición del nuevo espacio público en superficie, resultante del soterramiento del metro.

Del proceso de participación ciudadana llevado a cabo, entre cerca de las 50 sugerencias presentadas, se han incorporado al proyecto numerosas ideas vecinales en torno a temas referidos a zonas de juego, mobiliario, jardinería, accesibilidad, iluminación, aparcamientos y bidegorri, entre otros.

A través de la urbanización de esa zona se pretende crear un espacio público de 4.008 m<sup>2</sup>



# Getxo

*bizi ezazu*

Getxoko plaza, parke eta aisialdiko beste gune batzuek dituzten antzeko ezaugarriak izango dituen 4.008m<sup>2</sup>-ko azalera duen espazio publikoa sortu nahi da. Horretarako, jolas-guneak eta egoteko aldeak egokituko dira (horietako batzuk estalitakoak) eta berdegunea areagotuko da ere.

Hain zuzen ere, aisialdiko gune bat egokitzeko asmoa dago, hiri-altzariekin (paperontziak, bankuak, aulkiak, iturriak, kale-argiak...) eta berdegune eta lorategiak izango dituen. Horrez gainera, eremu berria Urduña kalearekin lotzen duten oinezkoentzako ibilbideak urbanizatzeko lanak egingo dira eta urbanizatuko den zatia alde batean oinezkoentzako pasealekua ere izango da. Irisgarritasunari dagokionez, lanak indarrean dagoen araudia betez egingo dira.

Lanak egiteko epea, guztira, 5 hilabetekoa da, 6 hilabete inguru luzatuko den lizitazio-prozesua amaitutakoan hasiko direlarik. Haien lizitazioaren aurrekontua 1.000.000 eurotik gorakoa da. Garraio Partzuergoak 800.000 eurotik gora ipiniko ditu lanak ordaintzeko eta Udalak, bere aldetik, lanak egingo ditu eta proiektuaren idazketa eta obra egiteko Partzuergoak ipinitakoaz gain jarri beharreko dirua emango du.

Ohar honen hedapena eskatzen dizuegu. Aldez aurretik, beti eskaintzen diguzuen arreta eskertzen dizuegu. Begirunez.

que disponga de similares características a las que cuentan las plazas y parques de otras zonas de esparcimiento existentes en Getxo. Para ello se habilitarán zonas de juego y áreas de estancia (algunas de ellas cubiertas) y se incrementará el espacio verde.

En concreto, se proyecta un espacio de ocio con zonas de juegos infantiles, con mobiliario urbano (papeleras, bancos, sillas, fuentes, farolas...) y en el que se acondicionarán zonas verdes y ajardinadas. Además, se habilitarán los itinerarios peatonales que conectan la nueva zona con la calle Puerto de Orduña y a uno de los lados de la superficie que se va a urbanizar concurrirá un paseo peatonal. En cuanto a la accesibilidad, la actuación se realizará en consonancia con la normativa vigente.

El plazo total para la ejecución de las obras es de 5 meses una vez finalizado el proceso de licitación en cual se estima que tardará 6 meses. El presupuesto de licitación de las mismas es de algo más de 1.000.000 de euros. El Consorcio de Transportes sufragará con mas 800.000€ las obras mientras que el Ayuntamiento será el encargado de la ejecución de dichas obras y costeará tanto la redacción del proyecto como la parte de la obra que exceda de lo aportado por el Consorcio.

Rogamos la difusión de esta nota. Agradecemos la atención que siempre nos prestáis. Atentamente.